

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko otsailak 25ko bileraren ondorio nagusien sintesia

I Atala. Ohiko gaiak

1. Abandonatutako animaliak biltzeko zerbitzuaren lehiaketa

Bi udal lehiaketatik atera ondoren dagoen egoeraren eta zerbitzua kontratatzeko aukeren berri eman da: 1) udal bakoitzaren banakako kontratu txiki gisa; 2) taldekatutako eskaintza-eskaera baten ondoren, udal bakoitzaren kontratu txiki gisa. Edozein kasutan, ez da egokia Esparru Akordioaren figura aurrekontu honetarako, ezta kudeaketa aginduak onartzea ere, hortaz.

II. Atala. Hondakinak biltzeko kontratuak bateratzeko proiektua

Ekoiure-Inguru-Cimas ABEE aholkularitza teknikoak hondakinak biltzeko kontratuak bateratzeko zerbitzu berriaren diseinua, ibilbide-orria eta kontratazio-orriak aurkeztu ditu. Eztabaida egin ondoren, honakoa adostu da: 1) datozen egunotan dokumentazio tekniko eta ekonomikoa bidaltzea, erabakiak hartzeko prozesua errazteko; 2) Batzordeak martxoaren 25ean izango duen bileran, kontratazioa bateratzearen inguruan Udal bakoitzak duen iritzia jakinaraztea.

Beste batzuk

Datorren batzarra, itxiera-batzarra, kontratuak taldekatzeari buruzkoa, martxoaren 25ean (asteazkena) izango da, 9:00etatik 11:00etara.

Batzordearen hurrengo ohiko batzarra martxoaren 12an (osteguna) izango da, 9:00etatik 11:00etara. Bertan, ohiko gaiak eta Eskualdeko Smart City Estrategiaren aurkezpena jorratuko dira.